## TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA

*Iragarkia*

Jendeari jakinarazteko dagokion epea amaitu ondoren eta alegaziorik ez direnez aurkeztu, Industria Eta Enpresa Guneetan Eta Beste Iharduera Batzuetan Hondakinak Biltzeko Zerbitzua Arautuko duen Ordenantzaren testua argitaratzen da, honako hau izanik:

### TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA OSATZEN DUTEN UDALEN EREMUAN DAUDEN INDUSTRIA ETA ENPRESA GUNEETAN ETA BESTE JARDUERA BATZUETAN HONDAKINAK BILTZEKO ZERBITZUA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZA

### I. ATALA

### ZERBITZUAK EMATEKO BALDINTZA OROKORRAK ETA EREMUA

*1. artikulua. Zerbitzuaren xedea.*

1. Ordenantza honen xedea da Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalen eremuan dauden industria eta enpresa guneetako dendatan, enpresatan eta industriatan hiri hondakinekin bateragarriak diren hondakinak biltzeko zerbitzua Tolosaldeko Mankomunitateak zein baldintzatan emango duen eta erabiltzaileak nola erabiliko duen arautzea. Hauexek dira Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Andoain, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil.

2. Zerbitzu hori jasoko dute industrialdeko denda, industria edo zerbitzu guztiek. Erabiltzaile horiek indarrean dauden xedapenekin eta ordenantza honekin bat etorriz erabiliko dute zerbitzua.

3. Era berean, ordenantza honen xedea da Tolosaldeko Mankomunitatearen lurralde eremuan –hirigunean, hiri inguruko auzoetan edo sakabanatutako herrigune landatarretan– dauden jatetxetan, hanburgesategitan, pizzeriatan, arrandegitan, harategitan, frutategitan eta antzekoetan, jantoki kolektibotan eta, oro har, batez ere erraz usteltzen diren usain txarreko hondakin organikoak sortzen dituzten jardueratan hiri hondakinak biltzeko zerbitzua Tolosaldeko Mankomunitateak zein baldintzatan emango duen eta erabiltzaileak nola erabiliko duen arautzea.

*2. artikulua. Hiri hondakinen eta hondakin bateragarrien definizioa.*

Apirilaren 21eko 10/1998 Hondakinei buruzko Legean xedatutakoaren arabera, hiri hondakinak edo udal hondakinak honako hauek dira: Etxebizitza partikularretan sortutako hondakinak, denda, bulego eta zerbitzuetan sortutakoak, baita arriskutsutzat jo ez direnak ere, baina izaera edo konposizioa kontuan hartuta lehen aipatu ditugun lekuetan edo jardueretan sortzen diren hondakinekin bateragarriak direnak.

## MANCOMUNIAD DE TOLOSALDEA

*Anuncio*

Transcurrido el plazo de información pública reglamentario y no habiéndose presentado alegación alguna, se procede a publicar la Ordenanza Reguladora del Servicio de Recogida de Residuos en Polígonos Industriales y Empresariales y Otras Actividades y cuyo texto es el siguiente:

### ORDENANZA REGULADORA DEL SERVICIO DE RECOGIDA DE RESIDUOS EN POLIGONOS INDUSTRIALES Y EMPRESARIALES Y OTRAS ACTIVIDADES UBICADAS EN EL AMBITO DE LOS MUNICIPIOS QUE INTEGRAN LA MANCOMUNIDAD DE TOLOSALDEA

### SECCION I

### CONDICIONES GENERALES Y ÁMBITO DE PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS

*Artículo 1. Objeto del servicio.*

1. Es objeto de la presente ordenanza, la regulación de las condiciones en que la Mancomunidad de Tolosaldea prestará y el usuario utilizará, los servicios destinados a la recogida de residuos asimilables a urbanos generados en comercios, empresas e industrias ubicadas en polígonos industriales y empresariales de los municipios que integran la Mancomunidad de Tolosaldea, esto es, en Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Andoain, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona y Zizurkil.

2. Tienen la categoría de usuarios a los efectos de la prestación del servicio, todos los establecimientos comerciales, industriales o de servicio del polígono que corresponda, quienes lo utilizarán de acuerdo con las disposiciones vigentes y con la presente ordenanza.

3. Asimismo, la presente ordenanza regulará las condiciones en las que la Mancomunidad de Tolosaldea prestará y el usuario utilizará, los servicios destinados a la recogida de residuos urbanos pertenecientes al gremio de la hostelería (restaurantes, hamburgueserías, pizzerías etc.) y de la alimentación (pescaderías, carnicerías, fruterías etc.), comedores colectivos y en general aquellas actividades productoras de residuos de naturaleza fundamentalmente orgánica que resulten fácilmente putrescibles y/o generen olores molestos y desagradables, ubicados en el núcleo urbano principal, como en los barrios periféricos ó núcleos de población dispersa de tipo rural, del ámbito territorial de la Mancomunidad de Tolosaldea.

*Artículo 2. Definición de residuos urbanos y asimilables.*

De conformidad con lo establecido en la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos, serán residuos urbanos o municipales los generados en los domicilios particulares, comercios, oficinas y servicios, así como todos aquellos que no tengan la calificación de peligrosos y que por su naturaleza o composición puedan asimilarse a los producidos en los anteriores lugares o actividades.

*3. artikulua. Salbuespenak.*

1. Zerbitzu mankomunatuak ez ditu hondakin hauek bilduko:

— Une bakoitzean indarrean dagoen ingurumen legedian «arriskutsutzat» jotzen diren hondakinak, hala nola, pinturak, tindagaiak, erretxinak, kolak, disolbatzaileak, produktu kimikoak, pestizidak, hodi fluoreszenteak, lanparak, pilak, bateriak, erabilitako olioak, likido hidraulikoak, osasun edo albaitaritza zerbitzuetakoak edo ikerketako hondakinak, produktu horiek eduki dituzten ontziak, eta abar.

— Eraikuntza eta konponketa lanetan sortu diren obra hondakinak eta ezertarako balio ez duten hondarrak.

— Produkzio prozesutan bereziki sortutako hondakin industrialak, etxebizitza partikularretan, denda, bulego eta zerbitzuetan sortzen diren hondakinekin bateragarriak ez direnak.

— Berariazko araudi sektorialean ezarritakoaren arabera kudeatu beharreko hondakinak (gurpilak, hondakin sanitarioak, erradiaktiboak, animali jatorrikoak, abelazkuntzakoak eta abar.), baldin eta kudeaketa horretan, ingurumenaren eta segurtasunaren ikuspegitik begiratuta, hiri hondakinei buruz exijitzen diren betekizunez bestelakoak bete behar badira.

— Lorategietako mantentze lanetan sortutako hondakinak.

2. Hondakinak biltzeko zerbitzuak ondorengo ezaugarriak dituzten hondakinak ez ditu onartuko:

— %65etik gorako hezetasuna duten hondakinak.

— Hauts itxurako hondakin solidoak edota kutsadura edo toxikotasun arriskua eragin lezaketen lohiak.

— Sutan dauden hondakinak.

— Giro tenperatura baino 10º C gehiagoko tenperaturan dauden hondakinak.

— Bere ezaugarri bereziengatik, biltzean eta garraiatzean edota ondoren balorizatzean edo desagerraraztean eragozpen garrantzitsuak sortzen dituzten hondakinak. Horrelakoetan, Mankomunitateak behartu dezake hondakinaren ekoizlea edo jabea, hondakin horiek bildu aurretik ahal den neurrian ezaugarri berezi horiek kentzera edo murriztera, edo bestela hondakin horiek modu eta leku egokian uztera. Gainera, behar bezala justifikatuta, hondakinaren jabea behartu dezake hondakin hori bere kontura kudeatzera.

*4. artikulua. Zerbitzua erabili eta hartzea.*

1. Hasiera batean, nahi izanez gero erabil eta har daiteke zerbitzua. Hori dela-eta, mankomunitatearen edozein lurralde eremuko industrialdean dauden enpresek edo tailerrek eskatu ahal izango dute hiri hondakinen eta hondakin bateragarrien bilketa zerbitzua.

2. Hondakinak biltzeko zerbitzuak interes sanitario eta ingurumenekoak dituenez, zerbitzu hori erabiltzea eta hartzea derrigorrezkoa dela erabaki dezake Mankomunitateak. Hori dela-eta, industria edo enpresa gune batean zerbitzu hau eskaintzen bada, bertan dauden establezimendu edo lokaletako titular, errentari edo jabeei zerbitzuan alta emango zaie. Zerbitzua nahitaez erabiltzeko eta hartzeko erabakia hartzea Tolosaldeko Mankomunitateko Batzordeari dagokio.

3. Hiri hondakinak edo hondakin bateragarriak dituztenek Tolosaldeko Mankomunitateari eman behar dizkiote derrigorrez, ordenantza honek zehazten dituen baldintzetan, honek birziklatu, balorizatu edo desagerrarazi ditzan.

*Artículo 3. Exclusiones.*

1. No serán admisibles en el servicio de recogida mancomunado los siguientes residuos:

— Residuos que estén tipificados como «peligrosos» en la legislación medioambiental vigente en cada momento, tales como pinturas, tintes, resinas, pegamentos, disolventes, productos químicos, pesticidas, tubos fluorescentes, lámparas, pilas, baterías, aceites usados, líquidos hidráulicos, los residuos de servicios médicos o veterinarios o de investigación, envases que hayan contenidos dichos productos etc.

— Escombros y materiales de desecho originados en obras y reparaciones.

— Residuos específicamente industriales originados en procesos productivos, que no sean asimilables a los producidos en los domicilios particulares, comercios, oficinas y servicios.

— Aquellos residuos cuya gestión esté regulada en normativa sectorial específica y esté sujeta a requerimientos especiales desde el punto de vista ambiental o de seguridad y salud, diferentes de los exigidos para residuos urbanos (neumáticos, residuos sanitarios, radiactivos, de origen animal, ganaderos, etc.).

— Residuos de mantenimiento de zonas ajardinadas.

2. Tampoco serán admisibles en el servicio de recogida, los residuos que presenten las siguientes características:

— Residuos que se presenten con una humedad superior al 65%.

— Residuos sólidos pulverulentos o fangos que presenten riesgos de contaminación o toxicidad.

— Residuos que se presenten en estado de ignición.

— Residuos que presenten una temperatura superior en 10º C a la temperatura ambiente.

— Los residuos que, por sus especiales características puedan producir trastornos importantes en el servicio de recogida y transporte o en su posterior valorización o eliminación. En este caso, la Mancomunidad podrá obligar al productor o poseedor de los mismos a que, previamente a su recogida, adopte las medidas necesarias para eliminar o reducir, en la medida de lo posible, dichas características o que los deposite en la forma y lugar adecuados. Además, por motivos justificados, podrá obligar a los poseedores a gestionarlos por sí mismos.

*Artículo 4. Uso y recepción del servicio.*

1. Inicialmente, el uso y la recepción del servicio es voluntaria, por lo que las empresas o talleres ubicados en cualquier área industrial del ámbito territorial de la mancomunidad podrá solicitar la prestación del servicio de recogida de residuos urbanos y asimilables.

2. Dado el interés sanitario y ambiental del Servicio de recogida de residuos urbanos y asimilables, la Mancomunidad podrá declarar obligatorio su uso y recepción, por lo que el simple hecho de prestarse el servicio en un polígono industrial o empresarial supondrá el alta en el mismo de todos los titulares, arrendatarios o propietarios de los establecimientos o locales que en él existan. Esta obligatoriedad será efectiva tras el correspondiente acuerdo de la Asamblea de la Mancomunidad de Tolosaldea.

3. Los poseedores de residuos urbanos o asimilables, estarán obligados a entregarlos a la Mancomunidad de Tolosaldea para su reciclado, valorización o eliminación, en las condiciones en que determine la presente ordenanza.

*5. artikulua. Hondakinak uztea.*

1. Debekatuta dago hondakinak kontrolik gabe utzi, erre, bota edo desagerraraztea eta horien kudeaketa zailduko duen edozein nahasketa edo diluzio egitea. Erabiltzaileak behartuta daude hondakin horiek Tolosaldeko Mankomunitateak finkatutako ordutegi eta baldintzen arabera uztera.

2. Arau-hausleek utzitako hondakinak kendu eta zikindu duten eremua garbitu beharko dute, dagozkien zigorrak alde batera utzita.

*6. artikulua. Hondakinak manipulatzea.*

Debekatuta dago hondakinak ontziz aldatu edo manipulatzea, bilketa zerbitzu mankomunatuek edo Tolosaldeko Mankomunitateak berariaz baimendutako langileek izan ezik.

*7. artikulua. Bilketaz arduratzen diren langileak legitimatzea.*

Hondakinak biltzen aritzen diren langileak bakarrik arduratuko dira hondakinak jaso eta eramateaz. Hondakin horiek beste edozein pertsona fisiko edo juridikori ematen dionak, horien ondorioz sortutako edozein kalteri biek bat eginda erantzun beharko dio, jar daitezkeen zigorrak alde batera utzita.

*8. artikulua. Hondakinak biltzeko baimenak.*

1. Tolosaldeko Mankomunitateko zerbitzuak edo zerbitzuek bakarrik dute hiri hondakinak edo hondakin bateragarriak jasotzeko ahalmena. Hori dela eta, debekatuta dago beste edozein pertsona fisiko edo juridikok hondakinak biltzea, ondorengo atalean xedatutakoek izan ezik.

2. Aurrez Tolosaldeko Mankomunitatearen baimena jaso dutenek bakarrik izango dute hiri hondakinak edo hondakin bateragarriak jasotzeko aukera. Baimena jaso dutenek agiri bidezko erregistroa osatu beharko dute eta bertan honakoak jasoko dira: Kudeatutako hondakinen kopurua, izaera, jatorria, helburua, bilketaren maiztasuna, garraiobidea eta balorizatzeko metodoa. Agiri horiek Mankomunitatearen esku jarriko dira, honek eskatzen dituen bakoitzean. Urte natural bakoitzari dagokion informazioa hurrengo bost urtean gorde beharko da.

3. Tolosaldeko Mankomunitateak hiri hondakinak eta bateragarriak kudeatzeko jarduerak zuzenean egin ahal izango ditu edo bestela toki araubideari buruzko legedian aurreikusitako beste edozein kudeaketa modu erabil dezake.

*9. artikulua. Zerbitzua emateagatiko tasa.*

1. Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udaletxeek urtero hondakinak biltzeko zerbitzua emateari dagokion tasa ezarriko dute. Erabiltzaileek tasa hori ordainduko dute, mankomunatutako udalerri bakoitzari dagokion ordenantza fiskalak xedatutakoarekin bat etorriz.

2. Aurreko betebeharra alde batera utzita, Mankomunitateak urtero ezarri ahal izango du tasa osagarri bat, disuasio neurri moduan edo beste edozein helburu betetzeko. Horretarako, ahal den neurrian, proportzionaltasun printzipioa aplikatuko du sortutako hondakin kopuruaren eta ordaindu beharreko kopuruaren artean eta baita tarifaren diskriminazio positiboaren printzipioa, hau da, tarifa murriztea bultzatuko da, berrerabiltzeak, birziklatzeak eta konpostatzeak azken tratamenduaren aurrean lortutako mailaren arabera.

*Artículo 5. Abandono de residuos.*

1. Se prohíbe el abandono, quema, vertido o eliminación incontrolada de residuos y toda mezcla o dilución de los mismos que dificulte su gestión, estando obligados los usuarios a depositarlos con arreglo a los horarios y condiciones establecidas por la Mancomunidad de Tolosaldea.

2. Los infractores están obligados a retirar los residuos abandonados y a limpiar el área afectada con independencia de las sanciones que correspondan.

*Artículo 6. Manipulación de residuos.*

Queda prohibido el trasvase o manipulación de los residuos, a excepción de los servicios de recogida mancomunados o personal expresamente autorizado por la Mancomunidad de Tolosaldea.

*Artículo 7. Legitimación del personal encargado de la recogida.*

De la recepción y retirada de los residuos únicamente se hará cargo el personal dedicado a la recogida de los mismos. Quien entregue dichos residuos a cualquier otra persona física o jurídica deberá responder solidariamente con esta por cualquier perjuicio que se genere a causa de aquellos, independientemente de las sanciones a que hubiere lugar.

*Artículo 8. Autorizaciones de recogida.*

1. Solamente está facultado para realizar la recogida de residuos urbanos o asimilables el servicio o los servicios de la Mancomunidad de Tolosaldea. Consiguientemente, queda prohibido que cualquier otra persona, física o jurídica, realice operaciones de recogida de residuos, salvo lo dispuesto en el apartado siguiente.

2. Únicamente podrán realizar labores de recogida de residuos urbanos o asimilables quienes hayan obtenido una autorización previa de la Mancomunidad de Tolosaldea. Estos deberán llevar un registro documental en el que figuren la cantidad, naturaleza, origen, destino, frecuencia de recogida, medio de transporte y método de valorización de los residuos gestionados. Esta documentación estará a disposición de la Mancomunidad a petición del mismo. La documentación referida a cada año natural deberá mantenerse durante los cinco años siguientes.

3. La Mancomunidad de Tolosaldea podrá realizar las actividades de gestión de residuos urbanos o asimilables directamente o mediante cualquier otra forma de gestión prevista en la legislación sobre régimen local.

*Artículo 9. Tasas por la prestación del servicio.*

1. Los ayuntamientos integrantes de la Mancomunidad de Tolosaldea establecerán anualmente la tasa correspondiente a la prestación del servicio de recogida de residuos. Los usuarios procederán al pago de las tasas de acuerdo con lo que establezca la ordenanza fiscal correspondiente de cada municipio mancomunado.

2. Sin perjuicio de la obligación anterior, la Mancomunidad podrá establecer anualmente una tasa complementaria a la tasa municipal, con objeto disuasorio o con otra finalidad cualquiera, aplicando en la medida de lo posible, el principio de proporcionalidad entre cantidad de residuos generados y cantidad a abonar y el principio de discriminación positiva de la tarifa, potenciando una reducción de la tarifa en función del grado de reutilización, reciclaje y compostaje alcanzado frente al tratamiento final.

II. ATALA

HONDAKINEN BILKETA ZERBITZUA

*10. artikulua. Bilketa zerbitzua.*

Bilketa zerbitzuak egituratzeko, ondorengo hondakinak hartuko dira kontuan:

1. Hondakin inerte arruntak, nahasian, ezin daitezkeenak berreskuratu edo balorizatu eta beraz, desagerraraztera bideratuko direnak.

2. Batik bat organikoak diren hondakinak, erraz usteldu eta/edo usan txarra botatzen dutenak, ostalaritzan eta elikagaigintzan sortutakoak.

3. Beren konposizio edo ezaugarriengatik tratatu ondoren birziklapenaren bidez berreskuratu, berrerabili edo berbalorizatu daitezkeen hondakinak; hala nola, papera, kartoia eta egurra. Bilketa hau beste zenbait materialetara zabaldu ahal izango da teknikoko eta ekonomikoki bideragarria denean.Zerbitzua beste material batzuetara zabaltzeko erabakia hartzea Tolosaldeko Mankomunitateko Batzordeari dagokio.

4. Beren ezaugarriengatik tratamendu berezia behar duten hondakinak. Horrelakoetan, Mankomunitateak bilketa bereziak sustatu eta koordinatuko ditu Eusko Jaurlaritzak baimendutako kudeatzaileen bitartez.

III. ATALA

HONDAKIN INERTE ARRUNTEN BILKETA ZERBITZUA

*11. artikulua. Hondakin inerte arruntak biltzea.*

Horrelako hondakinak ondorengo zehaztapenen arabera bilduko dira:

1. Beren ezaugarriengatik berrerabili, birziklatu edo berbalorizatu ezin daitezkeen hondakin inerte berreskuraezinen nahasketak bilduko dira.

2. Hondakin horiek establezimendu, denda, industria edo lokal bakoitzari Mankomunitateak emandako edukiontzietan sartuta entregatuko dira derrigorrez. Edukiontzi horiek Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek onartutako modelo normalizatukoak izango dira. Hasiera batean, edukiontzi berde bat erabiltzea aurreikusi da, 1.000 litro litroko ahalmena duena, dentsitate altuko injekzio bidezko polietilenoz fabrikatutakoa. Mankomunitateak eskubidea izango du zerbitzuarentzako egokitzat jotzen dituen beste edukiontzi mota batzuk edo hondakinak biltzeko beste sistema batzuk erabiltzeko. Edukiontzi guztiek Mankomunitatearen logotipo serigrafiatuta izango dute eta norena den jakiteko zenbaki korrelatiboa izan ahalko dute, zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzari izendatuko zaiona.

3. Mankomunitateak edo bilketa zerbitzuak establezimendu, denda, industria edo lokal bakoitzari zuzenean emandako edukiontziak erabili ahal izango dira soilik.Edukiontzi horiek derrigorrez lokalaren barruan egongo dira, bilketa egunera arte.

4. Zerbitzuaren erabiltzaileak Mankomunitateak entregatu dion edukiontziaren identifikazioa onartu beharko du.

5. Edukiontziak gauez hustuko dira eta horretarako, bilketa egunean bertan, ekoizleek euren edukiontziak 18,00ak eta 21,00ak bitartean aterako dituzte bere lokaleko atearen ondora, bilketa zerbitzuak eragozpenik gabe iristeko tokietan jarriz. Dena dela, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoei dagokie toki horiek zehaztea.

SECCION II

DEL SERVICIO DE RECOGIDA DE RESIDUOS

*Artículo 10. Servicio de recogida.*

Al objeto de estructurar los servicios de recogida se contemplarán actuaciones hacia los siguientes residuos:

1. Residuos ordinarios inertes mezclados sin posibilidad de recuperación o valorización y cuyo destino sea la eliminación.

2. Residuos de naturaleza fundamentalmente orgánica que resulten fácilmente putrescibles y/o generen olores molestos y desagradables, generados en el gremio de la hostelería y alimentación.

3. Residuos que por su composición o características puedan ser objeto de tratamiento y posterior recuperación vía reciclado, reutilización o revalorización, como el papel, el cartón y la madera. Esta recogida podrá ampliarse a otros materiales en el momento en que su recuperación sea técnica y económicamente viable. Esta ampliación será efectiva tras el correspondiente acuerdo de la Asamblea de la Mancomunidad de Tolosaldea.

4. Residuos especiales que por sus características precisen de tratamiento específico. En este caso la Mancomunidad promoverá y coordinará las recogidas especiales a través de gestores autorizados por el Gobierno Vasco.

SECCION III

DEL SERVICIO DE RECOGIDA DE RESIDUOS ORDINARIOS INERTES

*Artículo 11. Recogida de residuos ordinarios inertes.*

El servicio de recogida de este tipo de residuos se realizará de acuerdo a las siguientes especificaciones:

1. Recogida de mezclas de residuos de naturaleza inerte que por sus características no puedan ser recuperados mediante su reutilización, reciclado o revalorización.

2. Los residuos deberán entregarse obligatoriamente introducidos en los contenedores que la Mancomunidad facilitará a cada establecimiento, comercio, industria o local según modelo normalizado que será aprobado por los Servicios Técnicos de la Mancomunidad. Inicialmente se prevé utilizar un modelo de contenedor de color verde, de 1.000 litros de capacidad, fabricados en polietileno inyectado de alta densidad. La Mancomunidad se reserva la potestad de utilizar otro tipo de contenedores o sistemas de recogida de residuos que considere apropiados para el servicio. Todos los contenedores llevarán serigrafiado el logotipo de la Mancomunidad y podrán disponer de un número correlativo identificativo que se asignará a cada usuario del servicio.

3. Los contenedores facilitados por la Mancomunidad o el servicio de recogida serán de uso individual por parte de cada establecimiento, comercio, industria o local. Estos contenedores permanecerán obligatoriamente en su interior hasta el día de la recogida.

4. El usuario del servicio estará obligado a aceptar la identificación del contenedor entregado por la Mancomunidad.

5. Los contenedores se vaciarán en horario nocturno y para ello, los productores sacarán los contenedores entre las 18,00 y las 21,00 h. del día de recogida y los colocarán junto a la puerta de su local, en lugares que permitan al servicio de recogida acceder a ellos sin dificultad, correspondiendo en todo caso la determinación de los lugares concretos a los Servicios Técnicos de la Mancomunidad.

6. Zerbitzua erabiltzen dutenek kontuan izango dute, bai eman zaien edukiontzia bai barruko edukia beren ardurapekoak direla. Beraz, bilketa zerbitzua edukiontzietatik kanpo edo inguruan egon daitezkeen hondakinez ez da arduratuko.

7. Edukiontzietan botatako hondakinak gaueko bilketako ibilgailuan hustu ondoren, bilketa zerbitzuak edukiontzi hori berriz ere hartu duen leku berean utzi beharko du.

8. Edukiontziak behin hustu eta gero, zerbitzua erabiltzen dutenek euren establezimendu, saltoki, industria edo lokalean sartuko dute berriro, hurrengo goizeko 9:00ak baino lehen.

9. Ezin izango da Tolosaldeko Mankomunitateak edo bilketa zerbitzuak zuzenean emandako edukiontzia ez den bestelako edukiontzirik erabili, ezta kaxak, zakuak, paletak, kaiolak edo bestelako ontzirik ere. Edukiontzien hustuketa eta bilketa ezin izango da establezimendu, saltoki, industria edo lokal barruan egin, ezta bilketako ordutegia eta erabiltzailearen jarduera ordutegia bat datozenean edota zaintzailea dutenean ere.

10. Tolosaldeko Mankomunitateak entregatutako edukiontziak ordenantza honen xede den hondakinen bilketa zerbitzurako baino ez dira erabiliko.

11. Edukiontzi horietan ezin dira gaika bilduko diren hondakinak bota, adibidez, papera, kartoia, egurra edo Mankomunitateak gaika biltzeko zerbitzu berezia eskaintzen duen beste hondakinik. Edukia zein den ikusi ondoren, bilketa zerbitzuak hondakinak ez jasotzea erabaki dezake.

12. Edukiontzian hondakin arriskutsuak bota direla egiaztatzen bada, bilketa zerbitzuak eduki osoa baztertuko du eta zerbitzuko arduradunak Mankomunitateko Zerbitzu Tekniko eta Juridikoei jakinaraziko die, zigor espedienteari hasiera eman diezaioten.

*12. artikulua. Hondakin inerte arruntak biltzeko ordutegia.*

1. Edukiontzian bildutako eta desagerrarazi beharreko hondakin inerte arruntak gutxienez astean bitan bilduko dira. Maiztasun hori benetako beharren arabera aldatu ahal izango da, baina horretarako aurrez Tolosaldeko Mankomunitateko Lehendakariaren ebazpena beharko da.

2. Edukiontzien hiru laurdenak gutxienez beteta egongo dira.

3. Edukiontziak gauez hustuko dira, 21,00etik aurrera.

4. Bilketa eguna jaieguna baldin bada ez da bilketa zerbitzurik emango.

IV. ATALA

HONDAKIN ORGANIKOEN BILKETA ZERBITZUA

*13. artikulua. Hondakin organikoen bilketa.*

Horrelako hondakinak ondorengo zehaztapenen arabera bilduko dira:

1. Batik bat biodegradagarriak diren edo izaera organikoa duten hondakinak bilduko dira, ostalaritzako establezimenduetan, enpresetako jangeletan, elikagaiak manipulatzen dituzten enpresetan eta, industrialdean egonik, beren produkzio prozesuetan hondakin organikoak edo biodegradagarriak sortzen dituzten establezimenduetan sortutakoak.

6. Los usuarios del servicio tendrán en cuenta que, en cualquier caso, tanto el recipiente que se les entregue como su contenido será responsabilidad suya. Por tanto, el servicio de recogida no se hará cargo de los residuos que puedan encontrarse en el exterior o alrededores de los contenedores.

7. Una vez vaciada la carga del contenedor en el vehículo de recogida nocturno, el servicio estará obligado a dejarlo en el lugar del que lo ha retirado.

8. Los usuarios del servicio introducirán nuevamente los contenedores, ya vacíos, en su establecimiento, comercio, industria o local, estableciéndose como hora límite las 9.00 de la mañana siguiente.

9. No estará permitida la utilización de otro tipo de contenedores que no hayan sido entregados directamente por la Mancomunidad de Tolosaldea o por el servicio de recogida, ni la utilización por parte de los productores de cajas, sacos, palets, jaulas u otros recipientes para la entrega de residuos. Tampoco estará permitida la realización de labores de recogida y vaciado de contenedores en el interior de los establecimientos, comercios, industrias o locales, ni siquiera cuando el horario de recogida coincida con el horario de actividad del usuario o dispongan de servicio de vigilante.

10. Los contenedores entregados por la Mancomunidad de Tolosaldea, únicamente podrán utilizarse para el servicio de recogida de residuos objeto de la presente ordenanza.

11. No se permite el depósito en estos contenedores de residuos que vayan a ser objeto de recogida selectiva, tales como el papel-cartón y la madera u otras residuos para los que la Mancomunidad disponga de un servicio específico de recogida selectiva, pudiendo el servicio de recogida rechazar la carga una vez comprobado su contenido.

12. En el caso de que se comprobara que en el contenedor se han introducido residuos considerados como peligrosos, el servicio de recogida rechazará todo su contenido y el responsable del servicio informará a los Servicios Técnicos y Jurídicos de la Mancomunidad para que estos inicien el correspondiente expediente sancionador.

*Artículo 12. Horario de recogida de residuos ordinarios inertes.*

1. Se establece en un máximo de dos veces por semana la frecuencia de recogida de residuos ordinarios inertes depositados en contenedor y cuyo destino sea su eliminación. Esta frecuencia podrá ser modificada en función de las necesidades reales previa Resolución del Presidente de la Mancomunidad de Tolosaldea.

2. El nivel de llenado de los contenedores objeto de recogida, como mínimo deberá ser del 75%.

3. Los contenedores se vaciarán en horario nocturno, a partir de las 21,00 h.

4. El servicio de recogida no se efectuará cuando coincida con un día festivo.

SECCION IV

DEL SERVICIO DE RECOGIDA DE RESIDUOS ORGÁNICOS

*Artículo 13. Recogida de residuos orgánicos.*

El servicio de recogida de este tipo de residuos se realizará de acuerdo a las siguientes especificaciones:

1. Recogida de residuos de naturaleza fundamentalmente orgánica o biodegradable generados en establecimientos de hostelería, comedores de empresa, empresas de manipulación de alimentos y todos aquellos establecimientos que, estando ubicados dentro del polígono industrial correspondiente generen en su proceso productivo residuos de naturaleza orgánica o biodegradable.

2. Hondakin horiek establezimendu, denda, industria edo lokal bakoitzari Mankomunitateak emandako edukiontzietan sartuta entregatuko dira derrigorrez. Edukiontzi horiek Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek onartutako modelo normalizatukoak izango dira. Hasiera batean, edukiontzi berde bat erabiltzea aurreikusi da, 1.100 litro litroko ahalmena duena, dentsitate altuko injekzio bidezko polietilenoz fabrikatutakoa. Mankomunitateak eskubidea izango du zerbitzuarentzako egokitzat jotzen dituen beste edukiontzi mota batzuk edo hondakinak biltzeko beste sistema batzuk erabiltzeko. Edukiontzi guztiek Mankomunitatearen logotipo serigrafiatuta izango dute eta norena den jakiteko zenbaki korrelatiboa izan ahalko dute, zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzari izendatuko zaiona.

3. Mankomunitateak edo bilketa zerbitzuak establezimendu, denda, industria edo lokal bakoitzari zuzenean emandako edukiontziak erabili ahal izango dira soilik. Edukiontzi horiek derrigorrez lokalaren barruan egongo dira, bilketa egunera arte.

4. Zerbitzuaren erabiltzaileak Mankomunitateak entregatu dion edukiontziaren identifikazioa onartu beharko du.

5. Edukiontziak gauez hustuko dira eta horretarako, bilketa egunean bertan, ekoizleek euren edukiontziak 18,00ak eta 21,00ak bitartean aterako dituzte bere lokaleko atearen ondora, bilketa zerbitzuak eragozpenik gabe iristeko tokietan jarriz. Dena dela, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoei dagokie toki horiek zehaztea.

6. Zerbitzua erabiltzen dutenek kontuan izango dute, bai eman zaien edukiontzia bai barruko edukia beren ardurapekoak direla. Beraz, bilketa zerbitzua edukiontzietatik kanpo edo inguruan egon daitezkeen hondakinez ez da arduratuko.

7. Edukiontzietan botatako hondakinak gaueko bilketako ibilgailuan hustu ondoren, bilketa zerbitzuak berriz ere utzi beharko du edukiontzi hori hartu duen leku berean.

8. Edukiontziak behin hustu eta gero, zerbitzua erabiltzen dutenek euren establezimendu, saltoki, industria edo lokalean sartuko dute berriro, hurrengo goizeko 9:00ak baino lehen.

9. Ezin izango da Tolosaldeko Mankomunitateak edo bilketa zerbitzuak zuzenean emandako edukiontzia ez den bestelako edukiontzirik erabili, ezta kaxak, zakuak, paletak, kaiolak edo bestelako ontzirik ere. Edukiontzien hustuketa eta bilketa ezin izango da establezimendu, saltoki, industria edo lokal barruan egin, ezta bilketako ordutegia eta erabiltzailearen jarduera ordutegia bat datozenean edota zaintzailea dutenean ere.

10. Edukiontzi horietan ezin dira gaika bilduko diren hondakinak bota, adibidez, papera, kartoia, egurra edo Mankomunitateak gaika biltzeko zerbitzu berezia eskaintzen duen beste hondakinik. Edukia zein den ikusi ondoren, bilketa zerbitzuak hondakinak ez jasotzea erabaki dezake. Era berean, ahalik eta hondakin gehien berreskuratu asmoz, establezimendu hauetan sor daitezkeen beirazko ontziak ere ez dira onartuko. Beirazko hondakin horiek botatzeko establezimendu horietatik hurbil erabilera arrunteko iglu-edukiontziak jarriko dira, hiribidean kokatuta dauden antzekoak. Horrelako hondakinak sortzen dituztenek iglu-edukiontzietan sartuko dituzte, beti ere edukiontzi horiek erabiltzeko aplikazio arau orokorrak errespetatuz.

2. Los residuos deberán entregarse obligatoriamente introducidos en los contenedores que la Mancomunidad facilitará a cada establecimiento, comercio, industria o local según modelo normalizado que será aprobado por los Servicios Técnicos de la Mancomunidad. Inicialmente se prevé utilizar un modelo de contenedor de color verde de 1.100 litros de capacidad, fabricado en polietileno inyectado de alta densidad. La Mancomunidad se reserva la potestad de utilizar otro tipo de contenedores o sistemas de recogida de residuos que considere apropiados para el servicio. Todos los contenedores llevarán serigrafiado el logotipo de la Mancomunidad y podrán disponer de un número correlativo identificativo que se asignará a cada usuario del servicio.

3. Los contenedores facilitados por la Mancomunidad o el servicio de recogida serán de uso individual por parte de cada establecimiento, comercio, industria o local. Estos contenedores permanecerán obligatoriamente en su interior hasta el día de la recogida.

4. El usuario del servicio estará obligado a aceptar la identificación del contenedor entregado por la Mancomunidad.

5. Los contenedores se vaciarán en horario nocturno y para ello, entre las 18,00 y las 21,00 h. del día de la recogida, los productores sacarán los contenedores y los colocarán junto a la puerta de su local, en lugares que permitan al servicio de recogida acceder a ellos sin dificultad, correspondiendo en todo caso la determinación de los lugares concretos a los Servicios Técnicos de la Mancomunidad.

6. Los usuarios del servicio tendrán en cuenta que, en cualquier caso, tanto el recipiente que se les entregue como su contenido será responsabilidad suya. Por tanto, el servicio de recogida no se hará cargo de los residuos que puedan encontrarse en el exterior o alrededores de los contenedores.

7. Una vez vaciada la carga del contenedor en el vehículo de recogida nocturno, el servicio estará obligado a dejarlo en el lugar del que lo ha retirado.

8. Los usuarios del servicio introducirán nuevamente los contenedores, ya vacíos, en su establecimiento, comercio, industria o local, estableciéndose como hora límite las 9,00 de la mañana siguiente.

9. No estará permitida la utilización de otro tipo de contenedores que no hayan sido entregados directamente por la Mancomunidad de Tolosaldea o por el servicio de recogida, ni la utilización por parte de los productores de cajas, sacos, palets, jaulas u otros recipientes para la entrega de residuos. Tampoco estará permitida la realización de labores de recogida y vaciado de contenedores en el interior de los establecimientos, comercios, industrias o locales, ni siquiera cuando el horario de recogida coincida con el horario de actividad del usuario o dispongan de servicio de vigilante.

10. No se permite el depósito en estos contenedores de residuos que vayan a ser objeto de recogida selectiva como el papel-cartón y la madera u otros residuos para los que la Mancomunidad disponga de un servicio específico de recogida selectiva, pudiendo el servicio de recogida rechazar la carga una vez comprobado su contenido. Asimismo y al objeto de recuperar el máximo posible de residuos, tampoco se permitirá la recuperación de envases de vidrio que puedan generarse en estos establecimientos. Para posibilitar la entrega de estos residuos de vidrio se instalarán en las proximidades de los citados establecimientos, contenedores de uso común tipo iglú, similares a los ubicados en las vías urbanas, donde los generadores de estos residuos podrán introducirlos respetando las normas generales de aplicación para la utilización de estos contenedores.

11. Edukiontzian hondakin arriskutsuak bota direla egiaztatzen bada, bilketa zerbitzuak eduki osoa baztertuko du eta zerbitzuko arduradunak Mankomunitateko Zerbitzu Tekniko eta Juridikoei jakinaraziko die, zigor espedienteari hasiera eman diezaioten.

*14. artikulua. Hondakin organikoak biltzeko ordutegia.*

1. Hondakin organikoak establezimendu, denda, industria edo lokala dagoen udalerriaren hiriguneak duen maiztasun berberarekin bilduko dira. Maiztasun hori aldatu ahal izango da, baina horretarako aurrez Tolosaldeko Mankomunitateko Lehendakariaren ebazpena beharko da.

2. Udalerriko hirigunean udal hondakinak biltzeko ezarrita dagoen ordutegi berberean hustuko dira edukiontziak.

3. Bilketa jaiegunetan ere egingo da, Urte Berri egunean (urtarrilak 1) eta Eguberri egunean (abenduak 25) izan ezik.

V. ATALA

PAPERA ETA KARTOIAREN GAIKAKO BILKETA ZERBITZUA

*15. artikulua. Papera eta kartoia gaika biltzea.*

Horrelako hondakinak gaika biltzeko zerbitzua ondorengo zehaztapenekin bat etorriz emango da:

2. Industria edo enpresa gunearen ezaugarriengatik zerbitzua ezin bada behar bezala eman edo ematerik ez badago, Tolosaldeko Mankomunitateak, ekoizlea edo jabea behartu dezake hondakinak bere kontura kudeatzera eta hala balitz, Mankomunitateak horretarako egokitutako toki edo tokietara garraiatzera.

*26. artikulua. Erabiltzaileari emandako edukiontzi kopurua.*

1. Mankomunitateak edo bilketa zerbitzuak zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzari zuzenean emandako edukiontzi kopurua eta ahalmena sortutako hondakinen ezaugarri eta kantitate osoaren araberakoa izango da.

2. Hondakinen ekoizle edo jaberen batek, bere ustetan, bi edukiontzi edo gehiago behar baditu, horrela jakinarazi beharko dio Tolosaldeko Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoei.

Eskaera hori Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek aztertu eta egiaztatzen dutenean bakarrik onartuko da. Nolanahi ere, zerbitzuaren erabiltzaile berberak Mankomunitateak emandako zerbitzu bakoitzeko 1.000 litroko bi edukiontzi izan ditzake gehienez ere.

3. Gehienezko edukiontzi kopuru hau nahikoa ez bada eta ekoizleak edo jabeak hondakin kopuru handiago sortzen badu eta bilketa zerbitzuan eragozpen handiak sor baditzakete, orduan, bidezko arrazoiak direla medio, ekoizlea edo jabea behartu dezake hondakinak bere kontura kudeatzera eta hala balitz, Mankomunitateak horretarako egokitutako toki edo tokietara garraiatzera.

*27. artikulua. Edukiontzien mantentze lanak.*

1. Edukiontziak, kaiolak eta bestelako ontziak erabiltzeko moduan egongo dira uneoro, bai erabiltzaileen aldetik bai bilketa zerbitzuen aldetik. Bilketa zerbitzuak ez ditu onartuko gaizki dauden eta hustuketa lanak galarazten dituzten edukiontziak.

2. Mantentze edo konponketa lanak doakoak izango dira, baldin eta edukiontziak Tolosaldeko Mankomunitateko logotipoa ez badute, aurreko zerbitzuetatik datozen berrerabilitako edukiontziak direlako.

3. Mantentze edo konponketa lanak edukiontziaren erabiltzailearen kontura izango dira, baldin eta edukiontziak Tolosaldeko Mankomunitateko logotipoa badute.

3. La responsabilidad por daños y perjuicios que pudieran ocasionarse a causa de la exclusión indicada en este artículo será exclusivamente del productor o poseedor de los residuos. La Mancomunidad tendrá la potestad de inspección al respecto, pudiendo exigir cualquier cambio o reforma en el tema de evacuación de los residuos.

*Artículo 25. Accesibilidad de los vehículos de recogida a los polígonos industriales.*

1. En aquellos polígonos industriales o empresariales que por su antigüedad, ubicación, accesos, pendientes, existencia de puertas o barreras previas etc. existan dificultades para circular o maniobrar con el vehículo de recogida o para acceder a los locales de los productores, corresponde a los Servicios Técnicos de la Mancomunidad la determinación de los lugares concretos para efectuar la retirada de residuos y el establecimiento del sistema de recogida de residuos que considere más apropiado para el servicio.

2. Cuando las características del polígono industrial o empresarial sean tales que el servicio no se pueda prestar con las debidas garantías e incluso se vea imposibilitado, la Mancomunidad de Tolosaldea, podrá obligar al productor o poseedor a gestionarlos por sí mismo mediante gestor autorizado y en su caso, a transportarlos al lugar o lugares habilitados por la Mancomunidad.

*Artículo 26. Numero de contenedores facilitados al usuario.*

1. El número y la capacidad de los recipientes de uso individual facilitados por la Mancomunidad o el servicio de recogida a cada usuario del servicio se estimará en función únicamente de las características y cantidad total de residuos generados.

2. En el caso de que algún productor o poseedor de residuos precisara, a su juicio, más contenedores, deberá así hacérselo saber a los Servicios Técnicos de la Mancomunidad de Tolosaldea.

Dicha petición sólo será estimada una vez que los Servicios Técnicos de la Mancomunidad hayan analizado y comprobado su veracidad. En todo caso, se establece en dos el número máximo de contenedores de 1.000 litros que puede disponer un mismo usuario y en una misma ubicación para cada servicio prestado por la Mancomunidad.

3. Si este número máximo de contenedores no resulta suficiente y el productor o poseedor de los residuos genera una cantidad aún más elevada de residuos que pudiera ocasionar un trastorno importante al Servicio de recogida, por motivos justificados, podrá obligar al productor o poseedor a gestionarlos por sí mismo y en su caso, a transportarlos al lugar o lugares habilitados por la Mancomunidad.

*Artículo 27. Mantenimiento de los contenedores.*

1. Los contenedores, jaulas y demás recipientes deberán encontrarse en todo momento en perfectas condiciones de uso, tanto por parte de los usuarios como por parte de los diferentes servicios de recogida. El servicio de recogida rechazará los contenedores que se encuentren en mal estado de conservación y dificulten el vaciado del mismo.

2. Las operaciones de reparación o mantenimiento serán gratuitas cuando afecte a contenedores que no están identificados con el logotipo de la Mancomunidad de Tolosaldea, por tratarse de contenedores reutilizados provenientes de otros servicios anteriores.

3. Las operaciones de mantenimiento o reparación correrán a cuenta del usuario del contenedor, cuando éstos estén identificados con el logotipo de la Mancomunidad de Tolosaldea.

4. Hauxe da konponketaren kostua:

— Edukiontziaren zati bat konpontzea (tapa, gurpila, balazta,): 70 €/ordua.

— Garbiketa zerbitzua: 80 €/ordua.

— Garabi zerbitzua; besteak beste, lubetetatik behera bota edo erori diren edukiontziak berreskuratzeko: 100 €/ordua.

— Edukiontzi berria ematea (ekoizleari aurrez entregatutako edukiontzia hondatu, galdu edo desagertu delako): 180 €/edukiontzia.

## IX. ATALA

## BILKETA ZERBITZUA EMATEKO ORDUTEGI BEREZIAK

*28. artikulua. Bilketaren maiztasuna eta ordutegia aldatzea.*

1. Zerbitzua emateko ordutegi, modu edo maiztasunean edozein aldaketa gertatzen denean, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek behar den aurrerapenarekin emango dute aldaketa horren berri, larrialdi egoeretan erakunde eskudunak emandako xedapenak izan ezik.

2. Mankomunitateak bilketaren maiztasuna eta ordutegiak alda ditzake, erabiltzaileen intereserako onuragarria dela uste duenean, baina horretarako aurrez Tolosaldeko Mankomunitateko Lehendakariaren ebazpena beharko da.

3. Hondakinak biltzeko eguna aste barruko jai egun batean egokituz gero, egun horretako bilketa bertan behera geratuko da.

4. Oharrak Tolosaldeko Mankomunitateko web orrian jakinaraziko dira: www.tolosaldea.org

5. Larrialdietan edo ezinbesteko kasuetan bilketa zerbitzu arrunta ematea ezinezkoa bada, Tolosaldeko Mankomunitateak jakinarazi ondoren, erabiltzaileek ez dituzte hondakinak aterako zerbitzua normalizatu arte edo Mankomunitateak bidezko jarraibideak eman arte. Jakinarazpena hondakinak atera ondoren egiten bada, erabiltzaile bakoitzak berriz ere hondakinak jaso eta behar bezala gorde beharko ditu, eta ez dituzte aterako zerbitzua normalizatu arte edo Mankomunitateak bidezko jarraibideak eman arte.

6. Horrek ez du inola ere tasak murrizteko eskubiderik sortuko, ezta kalterik sortzen bada hori lehengoratu beharrik ere.

## X. ATALA

## BILKETA EGUTEGIA

*29. artikulua. Bilketa egutegia.*

Tolosaldeko Mankomunitateak emandako zerbitzuen bilketa egutegi zehatza Mankomunitateko web orrian jakinaraziko da: www.tolosaldea.org

4. El coste de la reparación se fija en:

— Reparación parcial del contenedor (tapa, rueda, freno,): 70 €/hora.

— Servicio de limpieza: 80 €/hora.

— Servicio de grúa, para recuperar contenedores que hayan podido ser arrojados por terraplenes, etc.: 100 €/hora.

— Entrega de contenedor nuevo (como consecuencia del deterioro, pérdida o desaparición del contenedor entregado anteriormente al productor): 180 €/contenedor.

## SECCION IX

## HORARIOS ESPECIALES DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE RECOGIDA

*Artículo 28. Modificaciones en frecuencia y horario de recogida.*

1. Los Servicios Técnicos de la Mancomunidad harán público con la suficiente antelación cualquier cambio en el horario, forma o frecuencia de prestación del servicio, con excepción de las disposiciones que dicte el órgano competente en situaciones de emergencia.

2. La Mancomunidad podrá modificar las frecuencias y horarios de recogida cuando lo considere beneficioso para los intereses de los usuarios, previa Resolución del Presidente de la Mancomunidad de Tolosaldea.

3. En el caso de coincidir un día festivo intersemanal, la recogida correspondiente a ese día se suspende.

4. Los avisos se anunciarán en la página web de la Mancomunidad de Tolosaldea: www.tolosaldea.org

5. En aquellos casos de emergencia o fuerza mayor en los que no sea posible prestar el servicio normal de recogida y previo anuncio de la Mancomunidad de Tolosaldea, los usuarios se abstendrán de depositar sus residuos hasta que se normalice el servicio o hasta que la mancomunidad dicte las instrucciones oportunas. En el caso de que el anuncio fuese hecho con posterioridad al depósito de los residuos, cada usuario deberá recuperarlos, guardarlos adecuadamente y no entregarlos hasta que se normalice el servicio, o hasta que la Mancomunidad dicte las instrucciones oportunas.

6. En ningún caso se generará el derecho a reducción de las tasas, ni a restitución alguna en el supuesto de originarse algún daño.

## SECCION X

## CALENDARIO DE RECOGIDA

*Artículo 29. Calendario de recogida.*

El calendario específico de recogida de los diferentes servicios prestados por la Mancomunidad de Tolosaldea se anunciará en la página web de la Mancomunidad: www.tolosaldea.org

XI. ATALA

HONDAKIN EKOIZLEEN ERANTZUKIZUNA

*30. artikulua. Erantzukizuna.*

1. Hiri hondakin edo hondakin bateragarrien jabeek Mankomunitateari eman behar dizkiote, ordenantza honetan zehaztutako baldintzetan, horiek birziklatu, baloratu edo desagerrarazteko. Ematen diren unetik Mankomunitateak hartuko du horien jabetza eta jabeek ez dute hondakin horiek sor ditzaketen kalteekiko inolako erantzukizunik izango, baldin eta hondakin horiek ematerakoan ordenantza hau eta gainerako arau aplikagarriak bete badira. Baldintza horiek beteta, hondakinak bilketako ibilgailuan kargatutakoan soilik joko dira entregatutzat.

2. Hondakinak sortzen dituzten enpresek arduradun-solaskide bat izendatu beharko dute, hondakinen bilketarako une bakoitzean jarduketa egokienak direnak koordinatzeko.

*31. artikulua. Hirugarrenei sortutako kalteak.*

Hondakin ekoizlea Tolosaldeko Mankomunitateak eman dizkion edukiontziak gaizki erabiltzearen ondorioz hirugarrenei sortutako kalte edo galeren erantzule izango da.

Bereziki, edozein arrazoirengatik (bilketa egunetan edukiontziak enpresatik kanpo daudelako, balaztatze gailuetan akatsak daudelako edo halakorik ez duelako, bandalismoa, etab.) edukiontzi, kaiola edo ontziak nahi gabe edo nahita mugitu eta talka egin dutelako sortzen diren kalte edo galerak ekoizlearen ardura izango dira, eta Tolosaldeko Mankomunitateak ez du inolako erantzukizunik izango.

*32. artikulua. Ikuskapena eta zaintza.*

1. Hondakin ekoizleek edo jabeek lankidetza osoa eskaini beharko diete Tolosaldeko Mankomunitateko ikuskapen zerbitzuei, hauek beren azterketak eta kontrolak egin ditzaten, laginak hartu eta informazioa bil dezaten eta bere betebeharrak egin ahal izateko beste edozein lan egiteko.

2. Ikuskapen lanak egiten dituzten pertsonak agintaritzaren agenteak izango dira eta hauek egiaztatutako eta aktaren bitartez formalizatutako gertakariek froga ondorioetarako ziurtasunezko presuntzioa izango dute.

XII. ATALA

HONDAKINAK KENDU DIRELA EGIAZTATZEKO DOKUMENTU ERREGISTROA EDO AGIRIA

*33. artikulua. Hondakinak kendu direla egiaztatzeko dokumentu erregistroa edo agiria.*

Ingurumeneko Gestio Sistema, ISO arauak, EMAS eta antzekoak direla-eta, enpresaren batek hondakinak kendu direla egiaztatzeko dokumentu erregistroa edo agiria behar badu, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoei eska diezaieke.

SECCION XI

DE LA RESPONSABILIDAD DE LOS PRODUCTORES DE RESIDUOS

*Artículo 30. Responsabilidad.*

1. Los poseedores de residuos urbanos o asimilables a estos, estarán obligados a entregarlos a la Mancomunidad, para su reciclado, valorización o eliminación en las condiciones determinadas en la presente ordenanza. La Mancomunidad adquirirá la propiedad de dichos residuos desde su entrega y los poseedores quedarán exentos de responsabilidad por los daños que puedan causar tales residuos, siempre que en su entrega se hayan observado esta ordenanza y demás normativa aplicable. Bajo tales premisas, los residuos sólo se considerarán entregados cuando hayan sido cargados en el vehículo de recogida.

2. Las empresas productoras de residuos deberán nombrar un responsable que a su vez sea el interlocutor con el fin de coordinar las acciones que en su momento se consideren más adecuadas a las diferentes recogidas de residuos.

*Articulo 31. Daños causados a terceros*

El productor de residuos será responsable de cualquier daño o perjuicio que cause a terceros como consecuencia del mal uso de los contenedores entregados por la Mancomunidad de Tolosaldea.

Muy especialmente, los daños o perjuicios ocasionados a terceros como consecuencia del desplazamiento accidental o intencionado y la consiguiente colisión o impacto de los contenedores, jaulas y recipientes desplazados entregados al productor por cualquier causa o combinación de causas (permanencia del contenedor en el exterior de la empresa los días que no coinciden con la recogida, fallos y/o ausencia en los dispositivos de frenado, vandalismo, etc.) serán de exclusiva responsabilidad del productor, y no implicará responsabilidad alguna para la Mancomunidad de Tolosaldea.

*Artículo 32. Inspección y vigilancia.*

1. Los productores o poseedores de residuos estarán obligados a prestar toda la colaboración a los servicios de inspección de la Mancomunidad de Tolosaldea a fin de permitirles realizar los exámenes, controles, toma de muestras y recogida de información y cualquier otra operación para el cumplimiento de su misión.

2. Las personas que realicen las labores de inspección tendrán el carácter de agentes de la autoridad y los hechos constatados por ellos y formalizados en acta gozarán de la presunción de certeza a efectos probatorios.

SECCION XII

REGISTRO DOCUMENTAL O JUSTIFICACIÓN DE RETIRADA DE RESIDUOS

*Artículo 33. Registro documental o justificación de retirada de residuos.*

Aquellas empresas que requieran de algún tipo de registro documental o justificación de retirada de residuos debido a un Sistema de Gestión Medioambiental, normas ISO 14000, EMAS o similar podrán solicitarlo a los Servicios Técnicos de la Mancomunidad.

## XIII. ATALA

## ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

*34. artikulua. Arau-hausteak.*

Ordenantza honetan jasotako zehaztapenak ez betetzea arau-haustetzat joko da, honakoekin bat etorriz: Euskal Herriko ingurumena babesteko 3/1998 Lege orokorraren 108. artikulua eta hurrengoetan xedatutakoa, eta Hondakinei buruzko 10/1998 Legearen 34. artikulua eta hurrengoetan xedatutakoa.

Ordenantza honetako arau-hausteak ekintza egiten denetik edo ingurumenari egindako kaltea detektatzen denetik (kaltea berehalakoa ez denean) kontatzen hasi eta urtebetera preskribituko dira.

Beste organo eskudun batzuek ezar ditzaketen arau-hausteez gain, hondakinekin lotutako jarduerei buruzko arau-hausteak honela sailkatzen dira: Oso larriak, larriak eta arinak.

Ondoren tipifikatu diren arau-hausteren bat egiten bada, dagozkion zigorrak jarriko dira, ordenantza honetan aurreikusitako moduan eta zenbatekoan.

1. Arau-hauste oso larriak:

a) Ordenantza honek arautzen dituen jarduketekin lotutako baimen edo lizentziak lortzeko administrazio espedienteari emandako datuak maltzurkeriaz aldatzea edo horietako batzuk ezkutatzea.

b) Hondakin arriskutsuak kontrolik gabe utzi, bota edo desagerraraztea.

c) Beste edozein hondakin kontrolik gabe utzi, bota edo desagerraraztea, baldin eta horren ondorioz ingurumenean kalte handia eragin badu, edo pertsonen osasuna arrisku larrian jarri badu.

d) Edukiontzietan hondakin arriskutsuak botatzea edo hondakin horiek beren artean edo arriskutsu ez direnekin nahastea, baldin eta horren ondorioz ingurumenean kalte handia eragin badu, edo pertsonen osasuna arrisku larrian jarri badu.

e) Hondakinak zehaztutako lekuetatik kanpo uztea, kontrolik gabeko zabor guneak sortuz.

f) Arau-hauste larriak behin eta berriz egitea edo horrelakoak pilatzea.

2. Arau-hauste larriak:

c) Arriskutsua ez den beste edozein hondakin kontrolik gabe utzi, bota edo desagerraraztea, baldin eta horren ondorioz ingurumenean kalte handia eragin ez badu, edo pertsonen osasuna arrisku larrian jarri ez badu.

b) Aplikagarria den araudiak edo baimenean jasotako baldintzek eskatzen duten dokumentazioa ematearen betebeharra ez betetzea edo datuak ezkutatu edo faltsutzea, eta dokumentazio hori zaindu eta gordetzeko betebeharra ez betetzea.

c) Edukiontzia beti enpresaren kanpoan egotea, beste edozein ekoizleren esku.

d) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziak etiketatu gabe egotea edo etiketa okerra edo partziala izatea.

d) Edukiontzietan hondakin toxikoak eta/edo arriskutsuak botatzea edo hondakin horiek beren artean edo arriskutsu eta/edo toxiko ez direnekin nahastea, baldin eta horren ondorioz ingurumenean kalte handia eragin ez badu, edo pertsonen osasuna arrisku larrian jarri ez badu.

## SECCION XIII

## INFRACCIONES Y SANCIONES

*Artículo 34. Infracciones.*

De conformidad con lo previsto en el articulo 108 y siguientes de la Ley 3/1998 General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco y articulo 34 y siguientes de la Ley 10/1998 de Residuos, se considerarán infracciones los incumplimientos de las determinaciones contenidas en la presente ordenanza.

Las infracciones de la presente ordenanza prescribirán al año, a contar desde la comisión del hecho o desde la detección del daño ambiental, si este no fuese inmediato.

Sin perjuicio de las infracciones que en su caso puedan establecer otros órganos competentes, las infracciones sobre actividades relacionadas con los residuos se clasifican en muy graves, graves y leves.

Si se cometiera algún de las infracciones que a continuación se tipifican, se impondrán las sanciones pertinentes en la forma y cuantía previstas en esta ordenanza.

1. Son infracciones muy graves:

a) La ocultación o alteración maliciosa de datos aportados a los expedientes administrativos para la obtención de autorizaciones, permiso o licencias relacionadas con el ejercicio de las actividades reguladas en esta ordenanza.

b) El abandono, vertido o eliminación incontrolado, de residuos peligrosos.

c) El abandono, vertido o eliminación incontrolado de cualquier otro tipo de residuos, siempre que se haya producido un daño o deterioro grave para el medio ambiente o se haya puesto en peligro grave la salud de las personas.

d) La entrega o mezcla en los contenedores, de residuos peligrosos entre sí o estos con otros residuos que no tengan esa consideración, siempre que como consecuencia de ello se haya producido un daño o deterioro grave para el medio ambiente o se haya puesto en peligro grave la salud de las personas.

e) Depositar residuos fuera de los contenedores propiciando focos de vertido incontrolado.

f) La reincidencia o acumulación de faltas graves.

2. Son infracciones graves:

a) El abandono, vertido o eliminación incontrolado de cualquier tipo de residuo no peligroso sin que se haya producido un daño o deterioro grave para el medio ambiente o se haya puesto en peligro grave la salud de las personas.

b) El incumplimiento de la obligación de proporcionar documentación o la ocultación o falseamiento de datos exigidos por la normativa aplicable o por las estipulaciones contenidas en la autorización, así como el incumplimiento de la obligación de custodia y mantenimiento de dicha documentación.

c) La presencia continua del contenedor en el exterior de la empresa, de manera que cualquier otro productor pueda utilizar el contenedor para el depósito de los residuos o pueda acceder al contenido del mismo.

d) La falta de etiquetado o el etiquetado incorrecto o parcial de los envases que contengan residuos peligrosos.

e) La entrega o mezcla en los contenedores, de residuos tóxicos y/o peligrosos entre sí o estos con otros residuos que no tengan esa consideración, siempre que como consecuencia de ello no se haya producido un daño o deterioro grave para el medio ambiente o se haya puesto en peligro grave la salud de las personas.

f) Arriskutsuak ez diren hondakinak eskuratu, saldu edo ematea Hondakinei buruzko 10/1998 Legean adierazi gabeko pertsona fisiko edo juridikoei; baita hondakin horiek onartzea ere, baldin eta dagozkien baimenetan edo aipatutako Legean ezarritako arauetan adierazitako baldintzetan egiten ez bada.

g) Bilketa zerbitzuaren erabiltzaileak, arrazoi justifikaturik gabe, uko egitea berak sortzen dituen hondakinak Mankomunitatearen esku jartzeari.

h) Hondakinen zamaketa lanak eta garraioa oztopatzea.

i) Administrazio publikoaren ikuskapen eta kontrolak eragoztea.

j) Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea edo horrelakoak pilatzea.

k) 1. puntuan adierazitako arau-hausteren bat egitea, baina duen garrantzi txikiagatik, ezin direnak oso larri moduan kalifikatu.

3. Arau-hauste arinak:

a) Aplikagarria den araudiarekin edo baimenetan jasotako baldintzekin bat etorriz, Administrazioari eman beharreko dokumentazioa aurkezterakoan atzeratzea.

b) 1. eta 2. puntuetan adierazitako edozein arau-hauste, baldin eta pertsonengan, hauen ondasunetan edo ingurumenean izan duen eragin txikiagatik, ezin bada oso larri edo larri moduan kalifikatu.

c) Oro har, ordenantza honek ezartzen dituen betebeharrak ez betetzea eta hondakinak biltzeko zerbitzuaren funtzionamendu ona eragotziko duten gainerako egite eta ez-egite guztiak.

*35. artikulua. Zigorrak.*

1. Aurreko artikuluan aurreikusitako arau-hausteak egiten badira, honako zigorrak ezarri ahal izango dira:

a) Arau-hauste oso larriak:

— Isuna: 600 euro eta 900 euro bitartekoa.

b) Arau-hauste larriak:

— Isuna: 300 euro eta 600 euro bitartekoa, eta edukiontzia kentzea.

c) Arau-hauste arinak:

— Isuna: 300 euro bitartekoa, hondakin arriskutsuen kasuan izan ezik. Horrelakoetan isuna 900 euro bitartekoa izango da.

2. Zigorrak ezartzeko kontuan izango dira erantzulearen egoera, bere erru-maila, behin baino gehiagotan errepikatzea, parte-hartzea eta lortutako onura, eta ingurumenari eragindako kalte-maila edo pertsonen osasunean eragindako arrisku-maila.

3. Zigorrak jartzeak ez du alde batera uzten Administrazioak kalte-galerak jasotzeko izan dezakeen eskubidea.

*36. artikulua. Arau-hauste eta zigorren preskripzioa.*

Arau-hauste oso larriak hiru urtera preskribituko dira, larriak bi urtera eta arinak sei hilabetera.

Arau-hauste oso larrien ondorioz jarritako zigorrak hiru urtera preskribituko dira; arau-hauste larrien ondorioz jarritakoak bi urtera; eta arinen ondorioz jarritakoak urtebetera.

Zigortzeko ahalmena preskribitu eta igarotako denbora edozein izanda ere, Tolosaldeko Mankomunitateak erantzuleei eska diezaieke gauzak lehengoratzeko eta berriz ere hasieran zeuden moduan uzteko.

f) La entrega, venta o cesión de residuos no peligrosos a personas físicas o jurídicas distintas de las señaladas en la Ley 10/1998 de Residuos, así como la aceptación de los mismos en condiciones distintas de las que aparezcan en las correspondientes autorizaciones o en las normas establecidas en la citada Ley.

g) La negativa por parte de los usuarios de los servicios de recogida, sin causa justificada a poner a disposición de la Mancomunidad los residuos por él generados.

h) La obstrucción a las operaciones de carga y descarga y traslado de los residuos.

i) La obstrucción a la actividad inspectora o de control de las Administraciones públicas.

j) La reincidencia o acumulación de faltas leves.

k) La Comisión de alguna de las infracciones indicadas en el apartado 1 cuando, por su escasa cuantía o entidad, no merezcan la calificación de muy graves.

3. Son infracciones leves:

a) El retraso en el suministro de la documentación que haya que proporcionar a la Administración de acuerdo a lo establecido por la normativa aplicable o por las estipulaciones contenidas en las autorizaciones.

b) Cualquier infracción señalada en los apartados 1 y 2, cuando por su escasa incidencia sobre las personas, sus bienes o el medio ambiente no se den los supuestos para su calificación como muy graves ó graves.

c) En general, el incumplimiento de cuantas obligaciones se deriven de las presentes ordenanzas así como todas aquellas acciones y omisiones que impidan el buen funcionamiento del servicio de recogida de residuos.

*Artículo 35. Sanciones.*

1. Las infracciones recogidas en el artículo anterior podrán dar lugar a la imposición de todas o algunas de las siguientes sanciones:

a) En el caso de infracciones muy graves:

— Multa desde 600 euros hasta 900 euros.

b) En el caso de infracciones graves:

— Multa desde 300 euros hasta 600 euros y retirada del contenedor.

c) En el caso de infracciones leves:

— Multa de hasta 300 euros, excepto en residuos peligrosos, que será de hasta 900 euros.

2. Las sanciones se impondrán atendiendo a las circunstancias del responsable, grado de culpa, reiteración, participación y beneficio obtenido y grado de daño causado al medio ambiente o peligro en que se haya puesto la salud de las personas.

3. La aplicación de sanciones no excluye la indemnización de los daños y perjuicios a que pueda tener derecho la Administración.

*Artículo 36. Prescripción de las Infracciones y Sanciones.*

Las infracciones muy graves prescribirán a los tres años, las graves a los dos años y las leves a los seis meses.

Las sanciones impuestas por infracciones muy graves prescribirán a los tres años, las impuestas por infracciones graves a los dos años y las impuestas por infracciones leves, al año.

La prescripción de la potestad sancionadora no impedirá a la Mancomunidad de Tolosaldea exigir a los responsables la restitución de las cosas y su reposición a su estado anterior cualquiera que sea el tiempo transcurrido.

*37. artikulua. Nahitaez betearaztea. Lehengoratzeko betebeharra, hertsatzeko isunak eta subsidiarioki betearaztea.*

1. Arau-hausleak behartuta daude gauzak lehengoratzeko eta berriz ere arau-haustea egin aurretik zeuden egoeran uzteko, jarri zaien zigorra alde batera utzita.

2. Arau-hausleek aurreko puntuan ezarritakoarekin arabera, dagokion errekerimenduan adierazitako epeak igaro ondoren gauzak lehengoratzen edo berritzen ez badituzte, organo eskudunak hertsatzeko isunak jar ditzake azaroaren 26ko administrazio publikoen eta ohiko jardunbide administratibo erregimen juridikoko 30/1992 Legearen 99. artikuluarekin bat etorriz. Isun horren kopuruak ez du gaindituko egindako arau-hausteari ezarritako isunaren herena.

3. Era berean, kasu hauetan eta lehengoratzeko lanak egiten ez badira, Mankomunitateak subsidiarioki egin ahal izango ditu, arau-hauslearen kontura.

4. Zigorren, kalte-ordainen eta aldatutakoa lehengoratzeko kostu ekonomikoaren kopuruak premiamendu administratibo bidez eskatu ahal izango dira, dagozkien ebazpenek bide horretan irmotasuna hartu ondoren.

*38. artikulua. Beste administrazioekiko erantzukizuna.*

Arau-hausleak egindako ekintzak beste administrazio publiko baterako hutsegite administratiboak izan badaitezke, Tolosaldeko Mankomunitateak ahalik eta azkarren jakinaraziko dizkie.

*39. artikulua. Erantzukizun penala. Agintaritza judizialaren esku-hartzea.*

1. Arau-hausleak egindako ekintzak delitu edo hutsegite izan badaitezke, Tolosaldeko Mankomunitateak agintaritza judizialari jakinarazi beharko dizkio.

2. Ekintza horiengatik arau-hausteraren espedientea irekitzen bada, jarduketak agintaritza judizialari helarazi ondoren, Mankomunitateak zigor prozedura eten egingo du, agintaritza horrek erabaki arte. Zigor prozedura eteteak ez dio Mankomunitateari galaraziko aldatutako egoera lehengoratzeko beharrezko neurriak hartzera.

3. Ebazpen judiziala emandakoan, hori absoluziozkoa izanda ere, Mankomunitateak zigor espedientea izapidetzen jarrai dezake, baina Auzitegiak frogatutzat jo dituen ekintzak errespetatuko ditu. Hala ere, inolaz ere ezingo da agintaritza judizialak zigortutako arrazoiengatik administrazio-zigorrik jarri.

*40. artikulua. Arau-hausteak bideratzea eta zigortzea.*

Arau-hauslearen lokala edo instalazioa dagoen Udalak izango du ordenantza honetan aipatutako arau-hausteak bideratzeko eta zigortzeko eskumena.

Horretarako, Mankomunitateko zerbitzuek eta mankomunatutako Udal zerbitzuek elkarrekin lan egingo dute, ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteak ikuskatzeko eta salatzeko. Mankomunitateak hala eskatuta, Udalak ez badu zigor prozedura hasten, eskaera egin den egunetik kontatzen hasita 10 eguneko epean, Mankomunitateko Lehendakariak arau-haustea bideratu eta zigortu ahal izango du.

Tolosa, 2010eko urriaren 26a.—Olatz Peon Ormazabal, Lehendakaria.

(90) (12931)

*Artículo 37. Ejecuciones forzosas. Obligación de reponer, multas coercitivas y ejecución subsidiaria.*

1. Sin perjuicio de sanción que se imponga los infractores estarán obligados a la reposición, restauración de las cosas al ser y estado anteriores a la infracción cometida.

2. Si los infractores no procedieran a la reposición o restauración, de acuerdo con lo establecido en el apartado anterior, el órgano competente podrá acordar la imposición de multas coercitivas con arreglo al artículo 99 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, una vez transcurridos los plazos señalados en el requerimiento correspondiente. La cuantía de cada una de las multas no superará un tercio de la multa fijada por la infracción cometida.

3. Asimismo, en estos casos y en el supuesto de que no se realicen las operaciones de restitución, la Mancomunidad podrá proceder a la ejecución subsidiaria por cuenta del infractor y a su costa.

4. El importe de las sanciones, el de las indemnizaciones y coste económico de restitución del orden perturbado podrán ser exigidos por la vía administrativa de apremio, una vez adquiridas firmeza en dicha vía las resoluciones correspondientes.

*Artículo 38. Responsabilidad ante otras administraciones.*

En los supuestos en que los actos cometidos por el infractor pudieran ser constitutivos de falta administrativa ante otra Administración pública, la Mancomunidad de Tolosaldea lo pondrá en su conocimiento a la mayor brevedad.

*Artículo 39. Responsabilidad penal. Intervención de la autoridad judicial.*

1. En los supuestos en que los actos cometidos por el infractor pudieran ser constitutivos de delito o falta, la Mancomunidad de Tolosaldea deberá ponerlos en conocimiento de la autoridad judicial.

2. Si se hubiere abierto expediente de infracción por dichos actos, trasladadas las actuaciones a la autoridad judicial, la Mancomunidad dejará en suspenso el procedimiento sancionador hasta que dicha autoridad se pronuncie. La suspensión del procedimiento sancionador no impedirá que la Mancomunidad adopte las medidas precisas para el restablecimiento de la situación alterada.

3. Producida la resolución judicial, aunque la misma sea absolutoria, la Mancomunidad podrá continuar la tramitación del expediente sancionador, respetando los hechos que los Tribunales hayan declarado probados. En ningún caso procederá sin embargo, la imposición de sanción administrativa por motivos ya sancionados por la autoridad judicial.

*Artículo 40. Competencia para instruir y sancionar las infracciones.*

La competencia para instruir y sancionar las infracciones reguladas en esta ordenanza será del Ayuntamiento en cuyo término esté ubicado la dependencia o instalación del infractor.

A estos efectos los servicios de la Mancomunidad colaborarán con los de los Ayuntamientos mancomunados a efectos de inspección y denuncia de las infracciones previstas en esta ordenanza. En el caso de que a requerimiento de la Mancomunidad el Ayuntamiento afectado no iniciara el procedimiento sancionador correspondiente, en el plazo de 10 días a aquel en que hubiese sido requerido, el Presidente de la Mancomunidad podrá proceder la instrucción y sanción de la infracción correspondiente.

Tolosa, a 26 de octubre de 2010..—La Presidenta, Olatz Peon Ormazabal.

(90) (12931)